

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK INMOBILIZATU, BIDE PUBLIKOTIK KENDU ETA UDAL BILTEGIAN EUKITEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua: OINARRIA ETA IZAEREA

Tokiko Ogasunen 5/89 Foru Arauaren 2. eta 20. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek ibilgailuak bide publikotik batu eta kentzeagatiko tasea eskatuko dau.

2. artikulua: ZERGA EGITATEA

Tasea honetako zerga egitatea da ibilgailuak bide publikotik bildu eta kentzeko zerbitzua, baita ibilgailuak mogidu ezinik iztea eta udal gordetegian egotea be, zertarako-eta bide publikoan txarto aparkatuta edo bertan behera itzitako ibilgailuak kentzeko eta bide publikoa libre izateko, edo udalak poliziaren inguruan dauzan eskumenak dirala bide emondako beste edozein zerbitzu edo jarduera egiteko.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Tasea honetako subjektu pasiboa izango zerbitzua emon beharra dakarren jaubea, kendutako ibilgailuaren titularra dana, edo tasea honetako zerga egitatea eragiten dauen beste edozein zerbitzu.

4. artikulua: TASA KUOTEA

Tasa kuotea kopuru finko bategaz finkatuko da, zerbitzuaren eta ibilgailu muetaren arabera.

2018

1. Kaletik garabiagaz kendutako ibilgailu bakoitza.....	124,85 €
2. Ibilgailua gordetegian dagoan egun bakoitxeko.....	10,40 €
3. Ibilgailua ibilgetzeagaitik, bakoitxean.....	68,67 €

5. artikulua: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

1.- SALBUESPENAK: Kuotea ordaintzetik salbuetsiko dira udaltzainek egindako jarduerak edo zerbitzuak, baina partikularrek galarazota daukiezan jarduketan eragindakoak ez badira, administrazioak berak dauzan unean uneko beharizanetan baino ez.

2.- HOBARIAK: Ez da emongo hobaririk tarifak aplikatu jakezan kuotetan.

6. artikulua: SORTZAPENA

1.- Tasea ordaindu beharra sortuko da zerbitzua emoten danean.

2.- Zerbitzua emoten hasi dala ulertuko da tasea honetako edozein jarduera hasten danean; halanda ze, ibilgailua kentzeko edo biltzeko lana amaitu ez bada be ez da izango eskubiderik kuotak murrizteko, beti be egoki diran zigorrei kalterik egin barik.

7. artikulua: ADIERAZPENA ETA ORDAINKETEA EGITEA

1.- Tasea honetako zerbitzuak emoteko eta jarduerak egiteko ofizioz jardungo dau, zuzenean udal langileen parte dagoanean edo salaketea jarrita dagoanean.

2.- Tasea honi jagokozan kitapenak zuzenean egingo ditue udaltzainek ibilgailua kendu, batu, gorde edo bertan mugitu ezinik izten danean.

3.- Emoitzako kopuruak ordaintzea ezinbestekoa izango da erabiltzaileak ibilgailua berreskuratu daian edo ibilgailuan barriz be ibilteko.

4.- Ordainketea egiteko epea amaituta zorra kitatu ezik, zor hori handiagoa izango da premiamendu errekaruak eta interesak dirala-eta.

8. artikulua: KUDEAKETA ARAUAK

1.- Tasea honetako zerbitzuak emoten edo jarduerak egiten dituen udaltzainek, zerbitzuok emoten diran momentuan, jasota itziko dituen zerbitzuaren ganeko datuak “laneko parteetan”, beti be honako honeek jarrita:

- Ibilgailuaren matrikulea
- Jaubea (Hirugarrenen fitxategiaren ganeko datuak)
- Zerbitzuaren tokia, data eta ordua
- Egindako zerbitzua edo jarduera.

2.- Udaltzainek ordenagailuan sartuko ditue “laneko parteetan” datuak, auto-ordainketearen modalidadearen arabera; halanda ze, jaso, kendu, gorde edo bertan mogidu ezinik itzitako ibilgailuaren jaubeak berehala ordaindu ahal izango dau tasearen zorra.

3.- Udaltzainek auto-ordainketearen modalidadean bildutako sarrerak diru-bilketearen kontu mugatuetan ordainduko dira edo osterantzean egunero emongo jakoz gordetzailari.

4.- Auto-ordainketearen modalidadeari jagokon inprimakia ordainketeren egiaztagiria izango da ondorio guztietarako, bertan “ordainduta” izten bada jasota eta ordainketea jasoko dauen agentearen izenpea eta data jarrita.

5.- Udaltzainek 10 egunean behin “laneko parteetan” kopiak aurkeztuko ditue Errenta Sailaren aurrean, aldi horretan eginiko zerbitzuei jagokezanak, baita auto-ordainketearen modalidadean eginiko kitapenak be, aplikatutako tarifak egiaztatzeko eta jakinarazpen zuzenak eta espedienteen kontrola egiteko beharrak eraginda.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsi dauzan zerbitzu publikoak emon eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dauzan Ordenantza Fiskala eta kudeaketa, bilketa eta ikuskapenaren ganeko Ordenantza Fiskal Nagusia eta aplikatzekoa dan legeria bete beharko dira.

AZKEN XEDAPENA